



Usurbilgo Udala

## USURBILGO JARDUERA FISIKO ETA KIROL ZERBITZUA

### ONLINE TRAMITEAK BURUTZEKO GIDA

<http://tramiteak.buruntzaldea.eus/>

Usurbilgo Oiardo Kiroldegiko hainbat zerbitzu online kudeatu ahal dira aurrerantzean. Era honetan, kiroldegiko zerbitzu desberdinen erreserba kudeatzeko aukera izango du. Hauek dira oraingoz web orri berriaren bitartez kudeatu daitezkeen espazio eta jarduerak:

- **Jarduerak:** botoi honi sakatuz Buruntzaldeako kiroldegi desberdinen jarduera eskaintza ikusi ahal izango da, dagokion informazio tekniko eta ordutegi proposamenekin. Plaza ere erreserbatu ahal izango da (ondoren ordainketa transferentzia bidez, edo Kiroldegira bertaratuta egin ahal izango delarik (\*Ikus **Jardueretan izena emateko prozedura**)
- **Hitzorduak:** Botoi honen bitartez herri bakoitzeko kiroldegiko espazio eta zerbitzuen aurretiko hitzordua egiteko plataformara sartuko gara. Bertan, igerilekuko kaleen ordu erreserba, gimnasioarako hitzordua edota rokodromo zein saunarako aurretiko hitzordua hartu ahal izango dute erabiltzaileek. (\*Ikus **Hitzorduak tramitatzeko prozedura**)

Web orrian sartzerakoan, Buruntzaldea Kirolak kiroldegiak agertzen dira, bakoitzaren zerbitzu eta erreserba aukerak agertuko direlarik. Interesatzen zaiguna klikatuko dugu eta prozesua hasiko da:





Usurbilgo Udala

# USURBILGO JARDUERA FISIKO ETA KIROL ZERBITZUA

## IDENTIFIKAZIOA

Hitzorduak hartzeko edo jardueretan izena emateko, erabiltzailearekin identifikatzea beharrezkoa izango da, lehenengo aldian sartu ondoren sistemak erabiltzailea gogorarazteko aukera ere dagoelarik. Identifikazio hau bi eratan egin daiteke:

1. **BAKQ eta Izenpe** (etorkizunean plataforman egin beharreko tramite guztiak burutzeko gomendagarriena)
2. **Webguneko Erabiltzaile eta pasahitza**, plataforman alta emanez

Hemik - Buruntzaldeko eskaintza

**BURUNTZALDEA**  
KIRODLAK

### BAZKIDEEN GUNEA

On-line zerbitzuak erabili ahal izateko, lehenik eta behin, aplikazioan altan eman behar duzu. Horretarako, bi bide dituzu:

- 1- **BAKQ eta Izenpe** ziurtagiri digitalen bitartez: klikaketa **hemen**
- 2- Behin duzun **Webgunean alta eman / Pasahitza berreskuratu** botoia sakatu.

Ondoren, datu batzuk eskatuko dizkizu (Kirol Zerbitzuko zure fitxarekin bat etorri beharko dira). Datu horiek egiaztatu ondoren, zure emaileria linka bidaliko dizu prozesua jarrizteko. Emaila jasotakoan, linken sakatu eta inprimaki bat zabalduko zaizu. Zure pasahitza sortu eta berretsi beharko duzu. Sortua duzu Kirol Zerbitzuko On-line zerbitzuak erabiltzeko pasahitza.

Ondoren, Zerbitzuko erreserba edo kudeaketaren bat egin nahi izanez gero, NAN zenbakia letrak in eta zuk sortutako pasahitza sartu beharko dituzu.

Kodea/nan:

Pasahitza:

Gogoratu erabiltzailea

### 1.- BAKQ edo Izenpe bitartez

“Hemen” dion estekari emango diogu, dugun ziurtagiri motaren arabera bideratuko gaituelarik:



Euskadiko identifikazio elektronikoa

Gipuzkoako udal zerbitzu telematikoak / Servicios telemáticos municipales de Gipuzkoa-k bere autentifikazioa eskatzen du

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:

	NAN/AIZ, pasahitza eta koordinadak
	Ziurtagiri digitalak

BakQ nola eskatu?

Ezetzatu



Usurbilgo Udala

# USURBILGO JARDUERA FISIKO ETA KIROL ZERBITZUA

[B@KQ](#) botoiari eman ezkeru, ondorengo datuak betez identifikatuko gara:

Izenpe edo beste Ziurtagiri digitalak botoia sakatu ezkeru, txartel bidez ordenagailuan identifikatuta dugun erabiltzailea hautatuta identifikatuko gara.

## 2.- Webguneko Erabiltzaile/Pasahitzak erabiliz

Dagoeneko altan eman bagara, gure Kodea/Nan eta pasahitza sartuz zuzenean sartuko gara gure espaziora, nahi ditugun tramiteak egin ahal izateko. Lehen aldia bada, “Izena eman” botoia sakatuz formularioa bete eta gure erabiltzailea sortu ahal izango dugu.




Usurbilgo Udala

# USURBILGO JARDUERA FISIKO ETA KIROL ZERBITZUA

## HITZORDUA HARTZEA

Gure erabiltzailearekin identifikatu ondoren, gure datuak jasotzen dituen atalean sartzen gara. Bertan ere hautatu dugun herri eta zerbitzuari dagozkion aukerak agertuko zaizkigu, zerrendatik aukeratu ahal izango ditugunak:



Gure intereseko jarduera edo espazioa aukeratu ondoren (igerileku handia, gimnasioa...), ondorengo taulan agertuko zaizkigu, libre dauden plaza kopurua eta erreserbaren iraupena adieraziko delarik:

HITZORDUAK						
Atzera						
Astelehena 14/12/2020	Asteartea 15/12/2020	Asteazkena 09/12/2020	Osteguna 10/12/2020	11/12/2020	Larunbata 12/12/2020	Igandea 13/12/2020
<b>KARDIO EREMUA</b> 9 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>KARDIO EREMUA</b> 9 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>KARDIO EREMUA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>KARDIO EREMUA</b> 9 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>KARDIO EREMUA</b> 9 Plaza libreak 60 Minutuak		
<b>PISU GUNEA</b> 3 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>PISU GUNEA</b> 3 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>PISU GUNEA</b> 3 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>PISU GUNEA</b> 3 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>PISU GUNEA</b> 3 Plaza libreak 60 Minutuak		
<b>IGERILEKU HAUNDIA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>IGERILEKU HAUNDIA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>IGERILEKU HAUNDIA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>IGERILEKU HAUNDIA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak	<b>IGERILEKU HAUNDIA</b> 8 Plaza libreak 60 Minutuak		



Usurbilgo Udala

## USURBILGO JARDUERA FISIKO ETA KIROL ZERBITZUA

Nahi dugun ordu eta eguna aukeratzen dugunean, erreserba konfirmatzeko ondorengo taulatxoa aterako zaigu:

Aukeratu nahi genuen ordua eta espazioa hori zela konfirmatu ondoren, azken berrespena egingo dugu hitzordua konfirmatzeko:

Behin hau egitean email bat iritsiko zaigu hitzordua datuekin. Email hortan bertan ere hitzordua anulatzeko esteka agertuko zaigu, hitzordua erabiltzea ezinezko bazaigu horren abisua emateko eta beste erabiltzaile batentzat erabilgarri geratu dadin hitzordu hori.

Bazkide ez direnek, hitzordua hartzeko aukera izango dute, instalakuntzara iristean dagokion sarrera edo erreserba tasa ordaindu beharko dutelarik, kiroldegira sartu aurretik.